

EUSKARAREN

# Berripapera

101. zenb. • HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA • 2000ko urria

## Antzerkia euskaraz Interneten guztion eskura

Mikel Martinez aktorearen ekimena izan da



ZALDI ERO

**M**askarada antzerki taldeko aktore Mikel Martinezek euskaraz idatziriko obrak jarri ditu Interneten. Euskaraz sortuak dira batzuk, eta itzuliak beste batzuk. Lan asko egina da Mikel Martinez Maskarada taldean eta testu askoren arduraria izan du gehienetan. Horiek denak gorderik izan ditu, harik eta Interneten guztion eskura jarri arte. Hiru ataletan dago banaturik web-gunea. Haurrentzako antzerkia, batetik. Bertan, Gianni Rodariren Danbor magikoa eta Bernardo Atxagaren Logalea zeukan ekilibristaren kasua eta Jimmy Pottolo eta zapataria ageri dira. Bakarrizketak izeneko ataletan, berriz, Patrick Süskinden Kontrabaxua eta Nemesio Etxanizen Zortzean bizia daude bildurik, besteak beste. Hirugarren ataletan, azkenik, Marc Legasseren Gastibeltzaren karabinak, Oscar Wilderen Ernesto izatearen garrantzia, Fernando Pessoren Marinela e.a. dira irakurgai.

Honakoa da web-gunearen helbidea: [www.geocities.com/antzerkia](http://www.geocities.com/antzerkia)

**Euskararen Berripapera** zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza**  
Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 81 16  
e-posta: I-Sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

.....

Helbidea: .....

.....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

e-posta: .....

## 'Cibergela', el aula de autoaprendizaje del euskaltegi de Zornotza

**I**az, "Cibergela" abiarazi zuen Aurten Bai fundazioak, hau da, Zornotzako autoikaskuntza- gela. Nafarroan erabiltzen hasi ziren programa honek Zornotzako udal euskaltegiaren 12 ikasle izan zituen aitzindari.

Ordenagailu-programa baten bidez, hizkuntza nahi duen erritmoan ikasleko aukera ematen dio Cibergelak ikasleari. Honek hainbat ariketa burutzen ditu ordenagailuaren aurrean, irakurketa zein idazketa lantzekoak, eta material osagarria ere badu, bideoak esate baterako. Ahozko ariketak bakarka egiten dira ahoskeraren eta intonazioaren gaineko zalantzak hobeto argitzeko. Hau guztiau ikaslearen erritmoaren arabera egiten da, eta teknologia berrien laguntzaz baliatuz, euskara ikasleko bide guztiz praktikoa gertatzen da. Zornotzako euskaltegiko irakasle Idoia Zuloagak adierazi izan duenez, "laster Internet bidez ikasi ahal izango da euskaraz".

Bide berean, HABEko zuzendari Jokin Azkuek baieztatu duenez, autoikaskuntza-gela abiaraziko dute 50 bat euskaltegik urte bukaera baino lehen, euskara nork bere gogoz lantzeko modua izan dezan.

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA  
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaDEPARTAMENTO DE CULTURA  
Hizkuntzaren eta Politikaren Sailburuordetza

4

Lege-gordailua: VI-572-1992  
ISSN: 1138-3038



# EUSKARAREN Berripapera

## sumarioa

- 1 • Hizkuntzen Urte Europarra 2001
- 2 • Pertsonajea  
Amaia Lasa  
• Laburrak:  
Basarri Bertsopaper Sariak  
UPV-EHUren argitalpenak  
Euskararen Erabilera Normalizatzeke Plan Irunen
- 3 • Xagux@rrak:  
Donatoren tertulia  
• Europako Batzordearen dirulaguntzak
- 4 • Antzerkia euskaraz Interneten  
• "Cibergela", Zornotzako autoikaskuntza gela

## Hizkuntzen Urte Europarra 2001

Hizkuntzak ikasteak atek irekitzen ditu eta denon eskura dago

**H**izkuntza-aniztasuna Europako ondarearen eta bere etorkizunaren osagai oinarrizkoa da. Horri dagokionez, Europan hitz egiten diren hizkuntza guztiek zeregin garrantzitsua betetzen dute. Urte Europarraz ari garela, helburua ez da hizkuntzarik hedatuena ikastea nazioarteko harremanak erraztearren. Hurkoa ulertu nahi badugu eta bere kultura estimatu, nahitaezkoa da haren hizkuntza ere -nahiz eta kili-kolo izan-konprenitzea.

Hizkuntzen Urte Europarra 2001 izenburupean Europako hizkuntza-aniztasuna islatu nahi da, hizkuntzen eta honi loturiko trebetasunen ikaskuntza bultzatzeko. Horretarako, Europan zehar zabalduko den informazio-kanpaina egingo da eta aurreikusi diren ekintza eta sustapen-neurrien artean ondokoak ageri dira: orri berezia Interneten, argitalpenak, erakusketa eta ekitaldiak, Europa mailako sariketak, Hizkuntzen Egun Europarra, irrati-telebista zein prentsa bidezko jarraipena, e.a.

### DENEK HAR DEZAKETE PARTE

Hizkuntzen Urte Europarrean parte hartzeko modurik zuzen eta eraginkorrena atzerriko hizkuntza bat ikasten hasia da, edo bestela, beste hizkuntza bati buruz dituzkegun ezagupenak sakontzea. Denek har dezakete parte Hizkuntzen Urte Europarrean: hizkuntza irakasle eta formatzaileek, kazetari eta hedabideek, gobernuz kanpoko erakundeek, enpresa eta fundazioek... 2000ko udazkenean Europako Batzordeak %50erainoko dirulaguntzak banatuko ditu Urte Europar honen helburuekin bat datozen



proiektuak laguntzeko, izan nazio, eskualde edo herrialdeak.

### DENON ESKURA

Hizkuntzen Urte Europarra 2001 guztiei zuzendurik dago. Informazio-kanpainaren mezurik nagusiena honakoa da: "Hizkuntzak ikasteak atek irekitzen ditu eta denon eskura dago". Europako Batzordearen dirulaguntzak eskuratu nahi izanez gero, gutxienez honako hizkuntza hauetako bi hartu beharko ditu proiektuak: Europako Batasuneko hamai-ka hizkuntza ofizialak (daniarra, alemana, grekoa, ingelesa, espainiera, frantsesa, nederlandera, portugesa, suediera eta suomiera), gaelikoa eta luxenburgera, islandiera eta norvegiera, eta Europako Batasuneko kide diren Estatuetakoko eskualde-hizkuntzak zein eremu urriko hizkuntzak (euskarra, besteak beste).

Gaiari buruzko informazio osoa, Europako Batzordearen web-gunean ondoko helbidean:

<http://europa.eu.int/comm/education/languages/es>



# EUSKARAREN Berripapera

101. zenb. • HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZTA • 2000ko urria

## Laburrak

### Basarri Bertsopaper Sariak

Zarauzko Udalak urtero antolatzen du Basarri Bertsopaper Lehiaketa euskara suspertu eta bertso gintzari lagundu nahian. XVI. edizioa egin da aurten eta ohiko bi sariak banatu ditu epaimahaiak. Julian Albisturrek irabazi du lehen saria "Agur, Basarri!" bertso sortarekin, eta Iñaki Gurrutxagak, berriz, bigarrena, "Au revoir, Paris" izenekoarekin.


### UPV-EHUn argitalpenak

UPV-EHUn argitalpen-zerbitzuak euskaraz argitaratu zituen iaz kalera zituen liburuen %44, eta gaztelaniaz %55. Aldizkari zientifikoei dagokienez, oster, 27 argitaratu zituen argitalpen zerbitzuak iaz: %14.8 euskaraz, %33 ingelesez, eta %51.8 gaztelaniaz.

### Irungo Udalaren Euskara Plana

Irungo Udalak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu zuen abuztuan. Planaren helburu nagusi da euskararen erabilera areagotzea hala zerbitzuen alorrean nola udalaren lan-hizkuntzaren alorrean. Legearen arabera jokatzu du eta hiritarren hizkuntza-eskubideak zainduz beteko du Irungo Udalak Euskara Plana.

### Udako Euskal Unibertsitatearen egoitza Eibarren



Udako Euskal Unibertsitateak egoitza akademiko berria izango du Eibarren. UEUK eta Eibarko Udalak sinatu duten hitzarmenaren arabera, Markeskoa jauregia erabiltzeko aukera izango du UEUK jarduerak akademikoak gauzatzen. UEUK 28 urte daramatza euskara eta euskarazko irakaskuntza garatzen, eta urte horietan hainbat ekitaldi antolatu ditu: jardunaldiak, hitzaldi-zikloak, ikastaroak... eta Iruñean eta Baionan egin izan ditu udako ikastaroak, egoitza jakinik gabe. Hemendik goiti, historian lehenengo aldiz, UEUK leku bat izango du bere jarduerak egiteko.

## Pertsonaia

### Amaia Lasa

"Geroaren aurpegia - El rostro del futuro (1967-1997)":  
Idazlearen poesia-lan guztiak argitaratu dituzte liburuan



ZALDI ERO


**A**maia Lasa (Getaria, 1948) hirurogeiko hamarkadako euskal poesiaren aitzindarietakoa da. Oraindik orain, bere poema guztiak biltzen dituen lana argitaratu du UPV-EHUK "Gaur egungo euskal poesia / Poesía vasca hoy" bildumaren barruan *Geroaren aurpegia - El rostro del futuro (1967-1997)* izenburupean. Hitzaurrean Felix Marañak eta Jose Luis Padronek idazlearen poemak aztertu dituzte.

Euskal Herriko kazetaritzaren aitzindarietakoa ere bada Amaia Lasa. "Nire bizitzako garairik onenetakoa izan zen. 18 urte nituen eta erreportaje haiek idatziz, hainbat kultur giroarekin harremanetan sartu nintzen, hala nola, 'Gaur' taldearekin. Gure herriaren idiosinkrasiaz jabetu nintzen emakumei ematen zien lekuari dagokionez. Orduantxe ikasi nuen zer zen feminismoa, edo gizar-te-justizia; eskolak bizitzari buruz irakatsi ez zidana ikasi nuen".

*Zeruko Argia*-n hasi zen idazten. Beste zenbait argitapenen edukiak -*Le Monde Diplomatique* edo *Triunfo* adibidez- bertan laburturik ematea izan zen bere eginkizunetako bat. Irakasle ikasketak burutzeaz gain, filosofia ere ikasi zuen Frantzia, eta literatura eta frantsesa Suitzian. 1971n argitaratu zuen lehen poema liburua Mikel nebarekin batera: *Poema bilduma*. Beste lan batzuk ditu: *Hitz nahastuak* (1977), *Nere paradisueta* (1979), eta *Malintxearen gerizpean* (1988), Nikaraguan hiru urtez irakasle jardun ondoren idatzia. "Iraultza bizitzak irakasten dizu aldaketa sakonek denbora handia behar dutela. Gizarteak ez ezik, bere osagaiek ere aldatu behar dute. Beharrezkoak dira barne- eta kanpo-aldakuntzak neurri berean".

*Geroaren aurpegia - El rostro del futuro* bilduma osoa 1997 urte arte iristen da. Horrek ez du esan nahi, haatik, Amaia Lasak idazteari utzi dionik. Berez, ez dio utzi idazteari. "Baina asko idaztea baino areago, ongi eta zentzuz idaztea zait ardura. 1997 urteak oso ondo ixten du 30 urteko zikloa".





EUSKARAREN

# Berripapera

101. zenb. • HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA • 2000ko urria

## Ikastetxez ikastetxe dabil 'Xagux@rrak: Donatoren tertulia'

134 ikasle-talde igaroko dira aurten autobusetik

**A**urreko ikasturte bukaeran ekin zion saioak egiteari irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina ibiltariak. Ikasturte berria abiatuak, "Xagux@rrak: Donatoren tertulia" zein ikastetxetan izango den zehaztu dute arduradunek. 18 ikastetxe baino gehigotara joango da autobusa ikasturte honetan -11 ikastetxe sare publikoak, 7 pribatukoak (tartean 5 ikastola)-, eta 134 talde igaroko dira bertatik.



Besteak beste, Araban, Gasteizko Miguel de Unamuno Bigarren Hezkuntzako Institutua eta Olabide ikastola bisitatuko ditu Xagux@rrak autobusak.

Bizkaian, ostera, Bilboko Kirikiño ikastola, Elorrioko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentroa, Arratzuko Barrutialde BHI, Arrigorriagako BHI, Derioko Txoriherri BHI, Durangoko Kurutzia ikastola, Loiuko Lauro ikastola, Markina-Xemeingo BHI, Mungiako Larramendi ikastola, eta Zallako BHI azpimarra daitezke.

Azkenik, Gipuzkoan, Azpeitiko Ikasberri ikastola, Donostiako Lauizeta BHI, Errenteriko Orereta ikastola, Tolosako Orixe BHI, eta Urretxuko Joxe Mari Iparragirre BHI ikastetxeetan izateaz gain, beste zenbaitetara iristea ere espero du.



## Deialdia

### Europako Batzordearen dirulaguntzak

Eremu urriko hizkuntzak sustatu eta babesteko asmoa duten ekimenak laguntzeko 2.5 milioi euroko dirulaguntzak banatzea aurreikusi du Europako Batzordeak.

Batasuneko hizkuntza ofizialak ez ezik, Europan beste berrogei hizkuntza historiko ere erabiltzen dira. Denak ere Europako kultur ondarearen atal dira eta bat baino gehiago datozen berrogeita hamar urteotan betiko galtzeko arriskuan da.

Europako Batasunak hizkuntza horiek bizirauten eta garatzen laguntzeko asmoz, besteak beste, esperientziak eta ezagutza berezituaren trukea bultzatzen du, arlo honetako profesional aktiboen arteko sareak sortzen ditu eta guztientzat baliagarri diren irtenbideak aplikatzen ditu. Diruz lagunduko diren proiektuok hiztun kopuruari, gaitasunari, hizkuntzaren pertzepzioari, hiztunek duten erabiltzeko aukerei edo ekoizpenari eta kultur hedapenari eta komunikabideei erreparatu beharko diete.

Europako Elkartearen laguntzak ez dira ez 50.000 euro baino txikiagoak ez 150.000 euro baino handiagoak izango, salbuespenak salbuespen. 2000ko abenduaren 1 eta 31 artean hasten diren proiektuak diruz laguntzeko eskaerak Europako Batzordeko egoitzara zuzendu behar dira posta arruntez edo ziurtatuz 2000ko azaroaren 6a baino lehen.

Gehiago jakin nahi izanez gero, Interneten da informazio osoa ondo helbidean:

<http://europa.eu.int/comm/education/mercator/langmin.html>

